

ARKO
KIROLAK: ZALDIBARKO TXAPELKETA GERTU

Arrasate

P R E S S

2001.eko
Irailaren 28a
555. zenb.



**Normalizazioa, euskararen
bizi iraupenerako erronka**

Eguaztenean, Hizkuntza Gutxituen
Nazioarteko Eguna izan zen

Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Iturriotz kalea, 10-1 ☎ 943 77 13 34

DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Maalako Errabala, 23-2.A ☎ 943 77 05 57

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 ☎ 943 77 00 40

FISIOTERAPIA - GAIBERRITZEA - ERREHABILITAZIOA

- ANDONI ETA MARIA. BASTERRETZEA Errehabilitazio Zentrua Olarte 43 Bis ☎ 943 77 03 96
- HONORIO IZQUIERDO Mendia jauregia. Erdiko kale, 22 ☎ 943 79 72 16
- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 ☎ 943 77 14 72

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Quiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kroideglan ere bai) ☎ 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ADUR odontologia institutu medikua Iturriotz, 35 ☎ 943 79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17-1 Ezk ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ☎ 943 79 71 90
- GIPIZKOako odontologia espezialitateen zentrua. Iturriotz, 7 Bis ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7-1 ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 ☎ 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3-1.-B ☎ 943 77 12 63

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6 ☎ 943 79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ☎ 943 79 29 95

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzeziño, 2 ☎ 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analis klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ☎ 943 79 44 22

OSTEOPATIA

- NEREA BENGOA (Bizkarreko minak eta funbalgiak) Azoka kalea, 4 (Mobilia) ☎ 659 58 66 89

PSIKOLOGIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ☎ 943 79 88 16

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ☎ 943 79 44 22

urteurrenak

Moda jaialdia

■ 77. zenb.

1990eko irailaren 28an idatzi genuen...

Mambo n°1 dantza taldeak antolatuta, datorren zapatuan, Arrasateko I. Moda Jaialdia egingo dute. Herriko hogeita bost dendak parte hartuko dute eta Udaleko Kultura batzordeak babestuko du. Arrasateko dendetako lentzeria erakusketa, herriko moda diseinu berriak eta oinetakoak erakutsiko dituzte herriko 54 modelok Amaia antzokian.



Informazio antimilitarista

■ 77. zenb.

1990eko irailaren 28an idatzi genuen...

Garze Zerbitzuan, Garibai jauregian, zerbitzu berria eskaintzen hasi dira. Kakitzat erakundeko partaideak prest daude lehen azalpenak eman edo erabakia hartuta dutenei tramiteak egiten laguntzeko. Inñigo Iruaegiren kasua gertatu aurretik kontzientziarik ez bazegoen ere, azken hilabetetan, geroago eta gazte gehiagok paperak egiteko informazioa eskatzen dihardu, Pertsia Golkoko arazoa piztu zenetik hona, batez ere.

Yoga elkarteak 10 urte

■ 77. zenb.

1990eko irailaren 28an idatzi genuen...

Arrasateko Yoga elkarteak hamargarren urtemuga bete du oraingo astean. Hori dela eta, aste osoan, hainbat ekintza egin dituzte. Yogaren eta osasunaren inguruko gaiak Jose Luis Armendiak, yoga elkartearen sortzaileak, nahiz kanpotik etorritako adituek eman dituzte. Parte hartze handia izan dute Monterron egin diren hitzaldi eta erakustaldiek.

besteek esana



Quebecoko hizkuntza politika bideratzeko modua desberdina da. Adibidez, han ikusten dute inportantea dela jendeak frantseseko sistema eragileak erabiltzea ordenagailuetan, euren Internet orrietan frantseseko informazioa jartzea... eta horrelako lanak egiteko orduan, Euskal Herriarekin konparatuta, hemengo lantegietan Emun, Elhuyar eta antzeko enpresak ibiltzen dira, ez dira ofizialak. Han, berriz, langile gehienak dira gobernuak jarritakoak. Ematen du han hizkuntzari garrantzi handiagoa ematen diotela”.

Iulen Alexolaleiba
HUHEZIKO IRAKASLEA
ARRASATE IRRATIA

(2001eko uztailaren 26a)

aurkibidea

- Lehen begiratu 3
- Inkesta 7
- Kirolak jokoan. 20/21
- Asteko hitzorduak 4
- Orain eta hemen. 9/10
- Kulturaren txokoa ... 22/23
- Herritarren berbak. 5
- Txutxumtxuak 12/13
- Uhinetan barrena 25
- Astearen erropasoa 6
- Aurrez aurre 18/19
- Foto zaharra 26



Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Oialora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@goiena.com
Arrasate Irratia: 943 71 17 31

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Iker Barandiaran. **Kazetariak:** Ubane Madero, Leire Kortabarria eta Xabier Urzelai. **Publizitateak:** Arantzazu Lagunilla, Natalia Martinez eta Izaskun Bolinaga. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92) **Zuzentzailea:** Sergio Azkarate. **Administrazioa:** Agurtzane Gainzarain, Ane Berezibar (Tel.: 943 71 23 90) **Diseinua:** Alex Azkarate. **Asteburuetako berriemakilea:** Lorea Aguiriano. **Banaketa arduraduna:** Naiara Odriozola-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.600. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.



ZERBITZUAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Igualetoia 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) 943 79 39 00
(emakumeak) 943 79 44 11
Buru osasunerako zentroa 943 79 90 11

Larrialdiak

SOS Delak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

Anbulatorioak

Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik
Barikura 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
asteburu eta
jai egunetan egun osoa
Arrasate

Astelehenetik

Barikura 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
• Txanda hartzeko: medikuntza
orokorra eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11
Aretxabaleta 943 79 74 58
Aramaio 945 44 53 40

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulantiak 943 45 87 44

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44
943 79 76 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentroak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburutegia

Monterron 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	09:00 (gaztelaniaz)
	11:00 meza nagusia (euskaraz)
	12:30 (elebiduna)

San Frantzisko eliza

Zapatua	10:00 (gaztelaniaz)
19:00 (elebiduna)	11:00 meza nagusia (euskaraz)
Domeka	12:30 (gaztelaniaz)
09:00 (euskaraz)	19:00 (gaztelaniaz)

Uribarri parrokia

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	11:30 (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

San Andres eliza

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	10:00 (elebiduna)
	11:00 (euskaraz)
	12:00 (gaztelaniaz)
	13:00 (gaztelaniaz)

Santa Teresa eliza

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	10:30 (gaztelaniaz)
	11:30 San Isidron (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

Santamañako eliza

Jalegun bezpera eta zapatua	Domeka
19:00 (gaztelaniaz)	12:00 (gaztelaniaz)

mahai-inguruak

Egitamu Orokorra aurkezteko hainbat ekin-tza antolatu dituzte: urriaren 1ean, mahai-inguru teknikoa izango da eta hilaren 8an, mahai-inguru politikoa. Monterronen izango

dira biak, 19:00etan. Bestalde, egitamua-ren erakustaldia zabalik izango da hilaren 11ra arte, astelehenetik zapatara.

garagartzako jaiak

Irailaren 28tik 30era, Garagartzako jaiak izango dira. Dantzaldiak, lamiei eta Neandert-

hal gizonei ongi etorria, meza, jolasak, auto saria eta abar izango dira.

kinto bazkaria

35eko kintoek urteroko batzarra egingo dute urriaren 1ean. Mezaren ondoren, bazkaria izango dute Aldape tabernan. Antolatzaile-ek dei berezia egiten diete 1914an jaiota-

ko emakumeei, parte har dezaten. Horretarako, deitu, irailaren 27a baino lehenago, David Arzamendiri (943791485) edo Pedro Zumelagari (943790591).

udalaxera mendi ibilaldia

Gazte Ekimenak Udalaxera mendi ibilaldia antolatu du irailaren 29rako. Irteera 10:30ean izango da, Udalan. Txistorra, albokariak, eta

abar izango dira. Izena emateko, deitu 943796828 telefonora.

kiroldegiko ordutegia

Hona hemen Musakolako kiroldegiko ordutegiak, irailaren 30era bitartean: 28an, 08:00etatik 21:30era, eta igerilekua 09:30etik 20:30era; 29an, 08:30etik

20:30era, eta igerilekua 09:30etik 20:30era; eta domekan, 08:30etik 13:30era, eta igerilekua 09:30etik 13:30era.

argazki lehiaketa

Urriaren 11n bukatuko da Arrasateko XII. Argazki Lehiaketan parte hartzeko epea. Gazteen ekimenak izan beharko da argazkien

gaia. Udaletxera eraman beharko dituzue lanok.

EAREN XV. URTEURRENA

Irailaren 29an, zapatua, Arrasateko Eusko Alkartasunak XV. urteurrena ospatuko du. 12:00etan, meza izango dute

hildako bazkideen omenez, San Frantzisko elizan, eta 14:30ean, bazkari oparoa Alkartetxean.

antzerki tailerra

Antzerki tailerra antolatu du AED elkarteak, urriaren 20tik urtarrilaren 26ra, zapatu goizetan. 17 urtetik gorako guz-

toi dago zuzendua. Izena emateko, joan AEDren egoitzara edo deitu 943771228 telefonora urriaren 11 baino lehen.

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

Egubakoitza, 28

- Azkoaga, Ferrerías

Zapatua, 29

- Azkoaga, Iturriotz

Domeka, 30

- Corcuera, Aranbarri

Astelehena, 1

- Irizar, Erguin

Martitzena, 2

- Amezua, Santa Marina

Eguaztena, 3

- Zabala, Zarugalde

Eguena, 4

- Ruiz, Magdalena



Herriarren berbak

Gazteak gara eta...

Eneko Barberena / "Erretiratua"

Gazteak gara eta indarra sobera... Abesti baten zatia da hau, duela gutxi dispersioaren eraginez zendu zen Iñaki Sáezek egindakoa. Berari eskaini nahi nizkioke lehenengo lerro hauek, berak inork baino hobeto ulertu zituelako Bitoriano Gandiagaren hitzak: "Hemen euskalduna izatea bezalako gudarik ez dago".

Iñakik gogor ekin zion euskalduntzeari, lehenengo bera eta gero ingurukoak. Arrasateko euskara erakundeek eskainitako omenaldi hungigarrian jakin genuen horren eta gehiagoren berri. Ez zaitugu ahaztuko.

Abestiekin segituta, horrela dio Dut musika taldeak: "Errexa izaten da dena ustela dagoela ozenki esatea eta arrai hilen antzera korronte etengabeak eramane gaitzala uztea". Gazteok beti izan dugu indar berezi bat gauzak aurrera eramateko orduan, baina, halere, ez nuke nahi mitifikaziorik. Leku guztietan bezala, gazteon artean denetik dago. Onerako eta txarrerako.

Dena gaizki dagoela? Oso ondo. Zer egin behar dugu horren aurrean? Aukera ezberdinak daude, baina argi dago ezer egiten ez duenak ez duela ezer aldatzen. Ados?

Nire aburuz, gauza argia da gaur egun

gaztea izatea ez dela erraza, ez horixe! Besteak beste, hor dago kapitalismoak ezarritako merkatu eredua, umetatik jasaten dugun konpetibitate bortitza (kirol zein ikas-tetxeetan), etxebizitzaren prezioa, porrot eskolarra ikusteko era...

Arazo hauei buelta ematen jakin behar dugu. Herri

honetan dagoeneko makina bat gazte lanean ari da aisialdi alternatibo bat lortzeko, euskalduntzeko, proiektu suntsitzailerak arbuizatzeko...

Nigandik mirespen handiena lanean diharduten gazte guztiei, beste batzuek energia justifikazio bila xahutzen duten bitartean!

Aipu berezia beharko luke gaztetxeak, oztopo guztiak gaindituaz aurrerantz doana. Badago gazte asanblada bat, uste dena baino anitzagoa, erosotasunak eta indiferentziak lokartzen ez dutena. Bejondeio-la!

Azkenik, aurtengo Gudari Egunaren leloa bereziki gustatu zait. Euskal Herriak merezi du. Euskal Gazte Herriak merezi du. Noski baietz. Telesforo Montzonek zioen bezala, "Zuek utopikook askatuko duzue Euskadi!". Entzuten al duzue irrintzia?

"Nigandik mirespen handiena lanean diharduten gazteei, beste batzuek energia justifikazio bila xahutzen duten bitartean!"

aste gazte

■ DIRU LAGUNTZAK

• Eusko Jaurlaritzaren eskutik, unibertsitatean edo unibertsitateetik kanpo ikasketak egiteko izaera orokorreko bekak. Epea: urriak 15.

■ LANA

- Tolosako Udalean giza baliabideetako teknikaria. Epea: urriak 1.
- Azpeitiko Udalak erdi mailako teknikaria behar du udal liburutegirako. Epea: urriak 4.
- Tafallako Udalean legelari-aholkulari juridikoa behar da. Epea: urriak 5.
- Nafarroako Foru Komunitateak estatistikaria behar du. Epea: urriak 10.
- Beasainen gizarte dinamizatzailea behar da. Epea: urriak 12.
- Altsasuko Udalean kirol teknikari edo koordinatzailea behar da. Epea: urriak 13.

■ IKASTAROAK

- Emakumeendako soldadura ikastaroa. Asteleheneetik egubakoitzera, arratsaldean, urriaren 15ean hasi eta martxoaren 20a arte. Epea: urriak 8.
- Ekin Emakume Elkarteak eskulan, dantza eta zeramika ikastaroak antolatu ditu.
- Grafologia ikastaroa Antzuolan, urriaren 10etik azaroaren 24a arte, zapatu goizetan, 10:30etik 12:30ak arte. Epea: urriak 8.
- Antzerki tailerra AEDren eskutik, zapatu goizetan, 10:00etatik 13:00ak arte. Urriaren 20an hasi eta urtarrilaren 26an bukatuko da. Epea: urriak 11.
- ICTEK psikogeriatria ikastaroa antolatu du, Portaeraren nahasteak adinduengan izenburupean. Hamabost ordu iraungo du, urriaren 1etik 5era.
- Udaleko Gazteria Sailak antolatu eta Lore Gazteak taldearen eskutik, euskal dantza ikastaroa. Urriaren 19an hasi eta abenduaren 1a arte, egubakoitzetan, 19:00etatik 20:30ak arte.

Argibideak:

GAZTE ZERBITZUA

943 77 00 65



USTEAK USTE

Laster arte

Batek gurako luke gauza onak sekula ere ez bukatzea, motz egiten zaizkigulako horietan pasatzen ditugun orduak. Pentsamendu horiexek ditut orain buruan. Izan ere, beste hainbat lankide-ri aurretik gertatu zaien moduan, neuri ere iritsi zait Arrasate Presi adio esateko unea. Pozez eta penaz egingo dut hori. Pozez, oso urrutira ez noalako: Goienkariaren orrietan aurkitu ahal izango duzue nire firma xumea; eta etapa berri horrek zer ekarriko didan jakiteko irrikaz nago. Penaz, Arrasate Presekin batera lagun asko agurtu beharko ditudalako: lankideak, hainbeste lagundu nautenak eta hain une onak pasarazi dizkidatenak: ahaztezinak zarete, eskerrik asko, bihotz-bihotzez! Baita hilabeteotan ezagutu ditudan arrasatear guztiak ere, nik eskatutako informazioa emateko beti prest. Eta ezagutu ez ditudanei ere, zuei, irakurleoi, esker mila. Guztion artean irakatsi didazue kazetari hobia izaten, dudan onena ematen eta lanbide hau benetan maitatzen. Ondo izan, eta hurrengora arte!

Leire Kortabarria

astea bi hitzetan

■ Aukera desberdintasuna

Dagoeneko pasatu dira Emakumeen Aukera Berdintasunerako Udal Planak aurrez ikusita zituen lau urteak. Orain, Udalak lehenengo plan hori ebaluatu egingo du, eta aurreratu edo aldatu diren aspektuak baloratu, datorren urteetarako jarraitu behar den bidea diseinatu ahal izateko.

1997ko ekainaren 13an sortu zen plana, eta gure herriko emakumezkoen eta gizonezkoen artean berdintasun handiagoa lortzea du helburu. Hain justu, horretarako behar diren helburuak eta jarduerak zehazten ditu.

■ Imersoko bidaien banaketa

Joan den zapatuan, Imersok erretiratuendako antolatzen dituen bidaiak banatzen hasi ziren. Bidaia horien

plaza nagusienak lehenengo fasean daudenek soilik jaso ahal izango dituzte, hau da, 60 urtetik gorakoek eta pentsioaren arabera aukera gehien dituztenek. Bigarren eta hirugarren fasekoek irailaren 25 eta 27ra arte itxaron beharko dute.

Eskaera nagusienak Balear Uharteetara eta Mediterraneo alderakoak izaten dira; gehienbat, Mallorkara eta Benidormera. Edozelan ere, lehenengo aldi horretan eskaera egiteko aukera izan ez dutenek Andaluzia, La Manga edo Lloret del Mar moduko lekuetara joateko aukera ere badute.

■ Mesedeetakoan eguna

Hilaren 24an Mesedeetako Amaren Eguna izan zela-eta, ospakizun berezia izan zen La Merced ikastetxean. Bez-

peran hasita (egubakoitza, kasu honetan), eskolako umeek erlijio ospakizuna izan zuten goizean eta jolasak arratsaldean. Astelehenean, berriz, Arrasateko Mesedeetako mojak La Merced ikastetxean elkartu ziren meza entzuteko eta gero guztiak batera bazkalzete.

■ Udalaren lanak

Umeen jolastokietan segurtasun zoruak ipintzen segituko du Udalak. Hain justu, joan den asteko Gobernu batzordeak ia milioi bateko inbertsioa onartu du San Josepeko eta Gorostizako umeen parkeetan segurtasun lurra ipintzeko.

Horrekin batera, Zerkaosteta, Biteri eta Garibai kaleetako argiteria berritzeko inbertsioa egitea onartu du Udalak, hiru milioi pezeta pasatxo.

■ Markak hausten

Joan den egubakoitzean auto bako eguna zela-eta, herri autobusa doakoa izan zen, automobilen kopurua gutxitzeko asmoz. Aukera hori aprobetxatuta, herri-ugarik erabili zuten zerbitzua eta inoiz baino bidaiari gehiago igo ziren autobusera. 1.758 bidaiari izan zituen herri autobusak. Orain arteko marka 878 lagunekoa zen, eta egubakoitzean kopuru hori erraz bikoiztu zuten. Arratsaldean, eta, batez ere, Eroskira joateko, erabili zuten herri autobusa gehienek.



UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

M
MEMESA
Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

TTUKUN

Fotokopiak
Liburu josteak
Fotokopiak koloretan
Planoen kopia
Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

Ze egin biherko leukie EEBBek irailaren 11ko erasuen aurrien?

EEBBko presidentiak Afganistan-en aurkako gerrie deklarau leikie



Elena Etxabe
(langillie)

Errudunek harrapau biherdie, baiñe gerrie ez da erantzunik onena.



Angelines Vera
(etxeakoandrie)

Ahal dan eta modurik onenien konpondu biherko litzake, gerrarik egon ez dain.



Jesus Mendiola
(langillie)

Edozer egin aurretik, ekarriko dauen ondorixuetan pentsau biherko leukie.



Mikel Lekue
(langillie)

Orain artien, gure izen dauena egin daue, eta oinguen, eurei tokau jakue. Ez daukie beste ezer egitterik.



Lucia Egure
(jubilaue)

Euren kontra barriro be egittie, behintzet, ez. Gerrie ez litzake izengo konponbiderik onena.




Amagoia García
(langillie)

Gauzak egin aurretik pentsau egin biherdie, ondorixuek oso larrixek izen leike-eta.



Pablo Alonso
(jubilaue)

Errudune topetan badaue, ondo deitxot erantzutiari, baiñe aurretik aztertu bariko erasorik ezin da onartu.



Bonifacio del Olmo
(jubilaue)

Konpondu egin biherko daue kontue, modurik onenien.


GORKA

ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA

ORDUTEGIA:
Astelehenetan itxita.
Asteartetik ostiralera:
09:30 - 20:00
Larunbatetan:
08:00 - 14:00

Ferrerias, 35 ARRASATE Tel.: 943 77 13 78



MARKO-JARTZEAK
ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84



NISSAN ALMERA TINO BERRIAK

SUTAN JARRIKO ZAITU



2.665.000

pezetatik aurrera



Nissan Brake Assist

SEGURTASUNA

MULTI-LINK ESEKI-DURA

MODULABILITATEA

N.B.A BALAZTAK

ALDIBI AUTOAK, S.A.

ARRASATE-BERGARA-ELGOIBAR

Zigarrola 1 - Tel.: 943 71 20 02. Faxe. 943 79 65 65.

aldibi@nortekar.com



Hizkuntza gutxituen eguna



Irailaren 26an, eguaztena, hizkuntza gutxituen eguna ospatu zen Europa osoan. Eta, euskara hizkuntza gutxitua izan-

da, Mondragoeko Euskal Herrian Euskaraz taldeak, besteak beste, bi horma-irudi marraztu ditu Seberren. Dome-

kan hasi eta oraingo astean bukatu dituzte horma-irudiok. Era berean, domekan, manifestazioa egin zuten eta eguaztenean, berriz, kale bilkura. EHE taldeak salatu zuenez, "euskara ez dago normalizatu Euskal Herriko inongo lurraldetan ezta inongo esparrutan ere". Era berean, nabarmendu zuten komunikabideetan ez dela euskararik erabiltzen, osasun arloko langile euskaldunen kopurua lotsagarria dela eta epaileek ez dutela euskara ikasten. Horrekin batera, zera gaineratu zuten: "Euskaldunok euskaraz bizitzeko eskubide osoa dugu, eta, horretarako, euskararen normalizazioa ezinbestekoa da".

Campus berria Arrasaten

Mondragon Unibertsitatearen plan estrategikoaren barruan, unibertsitate-campusen garapena aurrez ikusi dute. Guztira lau campus izango ditu MUNIk: Eskoriatzako, Oñatikoa, Goierrikoa eta Arrasatekoa, hain justu ere. Eta Arrasateri dagokionez, hemengo campusa nabarmen handituko dute. Horretarako, Trefasa lantegiko antzinako eraikina egokituko dute eta eraikin berriak egin. Dagoeneko lanak nahiko aurreratu da doz. Trefasa zaharra egokitzeko lanak bukatu dituzte



Trefasa lantegia egokitu dute. Orain eraikin berriak egintzen hasiko dira.

eta eraikin berrien lanak hasituta daude. Aurreikuspenak

betez gero, maiatzean bukatuko dituzte.

Kiroldegiaren inaugurazioa

Aukeak aditzera eman duenez, Musakolako Kiroldegiko birmoldatze lanak ezin izango dituzte bukatu urriaren 5erako, aurrez espero moduan; gauzak horrela, urriaren 19ra atzeratu dute inaugurazioa.

Horrez gain, kanpoko igerilekuak domekan itxiko dituzte. Gainerako instalazioak urriaren 1etik 7ra izango dira zabalik; eta gero, urriaren 8tik 19ra, kiroldegi osoa itxiko dute, harik eta sarrera eta kanpoaldeko espaloia konpondu arte. Ordu arte, Aukeako bazkide direnek Aretxabaleta, Bergara eta Oñatiko igerilekuak doan erabili ahal izango dituzte.

Kirol ekintzei dagokionez, aerobiceko eta gimnasiako eskolak iraileko egun eta ordu beretan emango dira, baina Antoñako pabilioian. Muskulazio gela zabalik egongo da, baina igeriketa ikastaroak ez dira urriaren 22ra arte hasiko. Hori bai, kontuan hartu beharko da egun hauetan aldagelak itxita egongo direla, hortaz, etxetik kirol arroparekin joan beharko da.

Nortasun agiriak

Nortasun agiriak berri edo egiteko txanda-zenbakiak irailaren hasieran banatu beharrean, datorren urriaren 15ean hasiko dira banatzen. Betiko moduan, txanda hartzeko Udaltzaingora jo beharko da, 08:15etik aurrera.

JADE
ILE APAINDEGIA

Maritxu Kajoi
egunerako makilatu eta orraztu
3.300 ptatik aurrera

ZATOZ!

Maalako Errabala, 21-B
ARRASATE • Tel.: 943 77 16 31

... **LILURATA** ...

OIHALAK

Denboraz prestatu
Maritxurako jantzia

Zerkaosteta, 5 - Behea • ARRASATE • Tel.: 943 - 79 89 72

On Jose Luis Iñarra oraindik gogoan

Urriaren 2a urteurren berezia da Mondragoan: On Jose Luis Iñarra parrokoa hil zela 25 urte beteko dira, mende laurdena, hortaz. Urte asko dira, baina oraindik ere mondragoetar gehien oroimenean dago; bereziki, nagusien artean. Denek esaten dute On Jose Luis Iñarrak asko egin zuela Arrasategatik, arrasatearren-gatik eta Euskal Herriarengatik. "Guztiok maite izan dugun gizona izan da, umeez, gazteek baita nagusiek ere" (El Correo Español, 76-10-5); "Artzain batek, Maisu batek utzi gaitu (...). Haren hutsunea igarri egin behar dugu. Bizitzaren arlo guztietan eredu izan dugu" (Udalbatzarra, 76-10-5); "baldin abertzale sutsurik bada, zu izan baitzara handienetako bat. (...) Zu herriaren lekuko eta eragile-rik zuzenena izan baitzara" (Zeruko Argia, 76-10-17); "Udalaitz mendi babes honetan, emana duzu bizia, herri honentzat eskaini ere zure izate guzia. Zabala eskuz, bihotzez alai, denetarako grazia...oroimen hartan elkartu gara ikastola eta herria" (Arrasateko Ikastola). Mondragoetik kanpo ere lagun ugari egin zituen On Jose Luisek, tartean, On Joxe Miel Barandiaran eta On Manuel Lekuona euskaltzaina eta lehengusua.

SEME KUTTUN

Oiartzunen jaio zen 1907ko apirilaren 15ean. Gasteizko



apaiztegia ikasi eta gero, Araban apaiz izan zen. Gero, 1941eko ilbeltzean (urtarrila), Mondragoeko erretore izendatu zuten, eta horretan jardun zuen 35 urtez. On Jose Maria Arizmendiarekin batera etorri zen. 1966an, Mondragoeko seme kuttun izendatu zuten, "herriari eskaini zizkion zerbitzu handiengatik".

Baina, Mondragoetz gain, Euskal Herriak ere kezkatzen zuen On Jose Luis, eta horren adibide da frankismoaren garaian, 1960an, beste 338 apaizekin batera eta hura artzapezpiku zela, gotzainari bidali zioten gutuna. Euskal Herrian torturak, zigorrak eta erasoak jasaten zirela salatzen zuen gutunak. Hori oso gogorra izan zen orduan, kontuan har-

tuta, bereziki, Francoren diktaduraren oinarrietako bat Eliza zela. Horren ondorioz, eta On Jose Luis zenez kargurik altuena zuen abadea, erantzun gogorra jaso zuen Madrildik, Tomas Garicano Goñi abokatuaren eta Gipuzkoako gobernadore zibil izandakoaren eskutik: "(...) sinestezina dirudi gurekin bizi izan direnek horrelakoak esatea; lehen esan dudana berresten dut, edo gutunaren edukia faltsua da edo zuk orain arte egindakoa hipokrisia hutsa izan da".

Ezagutu dutenek gogoan dute, bai, On Jose Luis Iñarra parrokoa; eta ezagutu ez dugunok beti pentsatuko dugu zerbait handia galdu dugula horrelako gizona ez ezagutzearren.

Erretiratuendako gimnasioa

Uribarri-Erguin auzoko erretiratuendako gimnasioa ego-akitzea onartu du Udalak. Hain justu, Uribarriko gizarte etxearen behealdean dagoen 100 metro koadroko aretoa ego-akituko dute, Usaetxe plazan. "Ateak eta leihoak ipini eta barrualdea txukundu", horixe adierazi digu Udaleko Zerbitzu Saileko buru Jose Mari Uribarri "Ametzu" k. Oraingoan, gimnasioa egitea onartu dute, hortaz, oraindik lanak adjudikatzea falta da. Behin hori eginda jakingo dugu noiz estreinatu ahal izango duten Uribarriko gimnasioa.

Soldadura

Ikusita langabeen artean emakumeak direla gehienak, Udalak emakumeendako soldadura ikastaroa antolatuko du. 400 ordukoa izango da, 12-15 emakumerendako, eta eskolak Aretxabaletako Institutuan izango dira. Urriaren 15ean hasi eta martxoaren 18ra arte iraungo du ikastaroak. Arratsaldetan, 14:00etatik 18:00ak arte.

Eskerrik asko

Gazte Txokoetatik eskerrak eman nahi dizkie Gaztetxeari eta Anger eta Spank taldeei. Gazte Txokoen zazpigarren urteurrena izan zela eta eman zuten kontzertuarengatik.



Comercial
ARPE


Ile apaindegirako artikuluak

Kontzeziño, 4 behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 78 09

UGARTE

Industria hornidurak

San Andres auzoa, 2 (Lana)
Tel.: 943-71 21 41 / 943-71 21 40
Faxa: 943-71 21 40



Gambrinus
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32


Edertasunaren Gida

CARMEN

**Ile apaindegia
Solariuma**


Ferrerias, 50
ARRASATE
Tel.: 943 79 03 63

Jose Antonio
GIZONEZKOEN
ILE APAINDEGIA



Otalora lizentziatua, 22-behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 42 10

SUSi
ILE APAINDEGIA



Garibai, 3-etxabea
Tel.: 943 79 50 27

LEA



Ferrerias, 14. 943 79 87 62

**A
U
S
A
R
T**



Ireki berria!!!

Ile apaindegi mistoa
Estetika zentroa - Txaro Carrizo

Iturriotz kalea, 24. Tel.: 943 77 30 60 / 943 77 21 58

JADE
ILE APAINDEGIA



Maalako Errabala, 21-B • ARRASATE • Tel.: 943 77 16 31

Lore

Lurrindegia eta estetika zentrua



KORA O'NEAL Ayer HR CLARINS BIOTHERM VALMONT

Olarte.10 • ARRASATE • Tel.: 943 79 52 50

ML
ILE APAINDEGIA

Alfonso X jakintsua, 1
behea
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

Hilero aterako dugu
Edertasun Gida. Zure zerbitzuak
iragarri nahi izanez gero,
deitu 943 71 23 91 telefonora



DEKORAZIO BITXIA!

Bateren batek horrela "dekoratu" du Arrasateko parrokiako kanpoaldeko Aitaren irudia: hatz artean hoditxo edo makilatxo bat ipini du. Zigarro antz handia du, hori izango ote asmoa? Susmoa dugu askori ez ziela graziarik egingo txantxa horrek...



MINTZAPRAKTIKAREN ORDEZ...

... beste praktika mota batzuk egin zituzten CIM akademiako ikasle gaztetxoek: eskulanak, jolasak, txokolate jana... izan zituzten. CIMek antolatutako jaialdian izan zen hori, joan den asteburuan.




EXTREMADURA EGUNA

Corazon de Encina kultura elkarteak joan den asteburuan egin zituen Extremadura Egunaren azken ospakizunak. Ipuin liburu baten aurkezpena, ohorezko topa eta, biribiltzeko, elkartearen musika taldeen saioak izan zituzten.

"Gazteen Ekimenak" XII. Argazki Lehiaketa

Lanak aurkezteko epea:
URRIAK 11



Argazkia: Santi Iglesias



BI KATEGORIA

- A) Deba Goieneko 13-17 urte bitarteko gazteak, taldean zein banaka.
- B) 18-35 urte bitarteko edozein

SARIAK

- A) **kategoria:** (modalitatea bereiztu gabe)
 - 1. saria: 40.000 pta
 - 2. saria: 20.000 pta
- B) **kategoria:**
 - *zuri-beltzean*
 - bildumarik onena: 75.000 pta
 - argazkirik onena: 50.000 pta
 - *koloretan*
 - bildumarik onena: 75.000 pta
 - argazkirik onena: 50.000 pta

Emakume Sailaren saria: 50.000 pta



ARRASATEKO UDALA

Gazteria Sails ■
Emakume Sails ■

Informazio gehiago eta arauak Gazte Bulegoan • Tel.: 943 77 00 65

ONGI ETORRI!

Imanol Elortza duzue Goienako komertzial berria. Arrasatearra da, las-ter 24 urte beteko ditu eta hainbat ikas-keta egin ditu: publizitatea eta harre-man publikoetan lizentziaduna izateaz gain, diseinu grafikoa, ingelesa eta ale-mana ikasi ditu.



GAZTE TXOKOEN FESTA

San Andresko eta Musakolako gazte txokoek zazpi urte bete dituzte; hori dela eta, ospakizuna egin zuten joan den asteburuan. Besteak beste, bi talderen kontzertua izan zuten: Anger eta Spank. Hona hemen bigarrenak, emanaldiaren onenean!



ADIORIK EZ, LEIRE

Arrasate Pressen lan egitera etorri zitzaigun oñatiar hau orain bi urte, eta orain anaia handiarekin lan egitera joango da, Goienka-riako egoitzara, Bergarara, hain zuzen ere. Zelakoa den mundua: Txutxumutxu egilea, orain bera txutxumutxu! Anaia txikia zela-tan izango duzu! KAN KAN KARAN!!!



TELAETXE S.A.


- Kortinak
- Kortinoiak
- Estoreak
- Fundak
- Mantelak
- Nordikoak
- Izarak
- Oihalen neguko bilduma berria ikusgai
- eta orain, ALFONBRAK

Oihalak etxean neurtu eta ipini arteko guztia, gure esku



Elgeta bidea, gasolindegitik 300 metrora • BERGARA • Tel.: 943 76 39 40 / 41
Asteleheneetik larunbatera (10:00 - 13:00 eta 16:00 - 20:00)

**BAKEROAK EGITEN
HASIZ GEROZTIK,
DEBAGOIENEAN
EZER EZ DA
BERDIN**



XIX. mende erdialdera, Denim oihala Kaliforniako meategietako kanpadendak egiteko erabiltzen zuten. 1870eko hamarkadan, galtzak diseinatu zituzten oihal harekin: bakeroak.

1950eko hamarkadan, rock-and-rollaren eta zinema estatubatuarren eraginez, mundu osora zabaldu ziren bakeroak.

Debagoienean, 1846an, Fabrica de Hilados, Tejidos y Estampados de Vergara sortu zen. 1974an, Tavesa izenarekin ordurako, bakero oihala egiten hasi zen.

Gaur egun, eskualdeko bakero oihal gehiena bi lantegik ekoizten dute: Algodonerak eta Narvaizak. Biak batuta, 300 lagun ari dira lanean eta urtean 4.500 milioi inguruko salmentak dituzte.

Garagartzako jaiak

Samigela
2001

Irailak 28, 29 eta 30

Ante
garajea

TXAPA ETA PINTURA
KONPONKETAK

Garagartza
auzoa, 9
Tel.: 943 79 82 59




Elizondo
kafetegia



Garagartza auzoa • ARRASATE • TEL.: 943 79 15 99

Armairuak, hormako armairuak,
ateak, oholtzak, leihoak etab.



AROSZTEGIA
LAGUN

Garagartza auzoa, 5 2º
(Bixiena Baserría) • ARRASATE
Tel.: 943 77 02 43
Mugikorra: 659 77 40 83

Markoalde, 5-7 • BERGARA
Tel.: 943 76 08 10

Belun
KAFETEGIA



Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 61 14

FAGOR
ELEKTRATRESNAK



San Migel jai zoriontsuak
opa dizkizuegu

- Ontzi-garbigailuak
- Arropa-garbigailuak
- Egosketa



SAMIGEIAK 2001

GARAGARTZA AUZOA

INBERTSIOAK ETA ZERBITZUAK S.A.
AHOLKULARI INMOBILIARIOAK



Garagartzako auzokideei guregan izan duten konfidantza eskertzen diegu.
Ondo pasau jaixak!!!

Iturriotz, 11 • 20500 ARRASATE •
Tel.: 943 79 20 48 / 943 77 14 11 Fax: 943 77 08 82
arrasate@infonegocio.com



KOBATEKO HARROBIA

Eraikuntzarako agregakina



KOBAUNDI HORMIGOIAK

Hormigoi prestatuaren fabrikazioa

**Ondo pasau
Garagartzako jaixetan**

Tel.: 943 79 10 36 / 943 79 17 36. Faxa: 943 77 02 51
Posta kutxa: 85. Garagartza auzoa.



OLATZ AZKARRAGA (IBAI ARTEKO PRESIDENTEORDEA)

«Fidela den jendea eske»

Ibai Arte herriko merkatarien elkarteak udazkeneko kanpainari ekin dio. Eta gogor ekin ere. Bezeroak ganoraz zaindu gura dituzte, eta milioi erdi pezeta zozkatuko dute erosleek artean. Elkarteko bazkide guztien artean 40.000 txartel banatu dituzte eta merkatariek erosleei banatuko dizkiete hemendik eta urriaren 26ra arte. Orduan, zozketa egingo dute, arku tiratzaileen erakusketa eta guzti, 19:00etatik aurrera. Irabazleak bi egun izango ditu dirua herriko dendetan gastatzeko. Halaxe argitu digu Olatz Azkarragak.



— Edozein dendatan, bi egunean?

— Ibai Arteko bazkide diren dendetan, jakina. Azaroaren 9 eta 10eko asteburuan gastatu beharko du milioi erdia irabazleak. Eta muga bakarra da denda bakoitzean ezin izango dituela 100.000 pezeta baino gehiago gastatu.

— Horrelakoek jendea erakartzeko balio izaten dute ala bezeroak pozik egoteko?

— Giroa zaintzea da kontua, jendeak hemen, Arrasaten, eros dezan. Erakarri ez dugu jendea erakartzen, baina fidela den jendeari eskerrak emateko modua da. Denei gustatzen zaizkie horrelakoak eta, azken batean, denondako motibazioa da.

so, gehienbat, Gabonetan izaten da; baina orain, udazkenean, lanean gabilta jendea Arrasaten ibil dadin erosketak egiten... Egia esatearren, aspaldi hasi ginen horrelakotan eta urtero egiten dugu zerbait berria.

— Hortaz, udazkenekoaz gain, urtean beste ekimen batzuk egiten dituzue?

— Bai, Gabonetan eta udaberrian. Handiena Gabonetakoa izaten da. Era berean, egubakoitzetan kultura bultzatzen saiatzen gara: musika, umeendako jolasak, eta abar, giroa epeltzeko. Bestalde, Gabonetako umeen parkeko, Txikilandiako, autobusa diruz laguntzen dugu. Daukagunarekin ahal duguna egiten dugu,

«Daukagunarekin ahal duguna egiten dugu, betiere herrirako gauzak antolatu guran»

— Urtero zerbait desberdina asmatzen duzue...

— Bai. Urte batean, auto bat eman genuen sari moduan, hurrengoan, Pariserako bidaia... jendea beti dabil itxaroten ea zein sari izango den.

— Hortaz, ohitura sortu duzue...

— Apurtxo bat bai. Aka-

betiere, herrirako gauzak antolatu guran, ahal dugun neurrian herriari bizitasun apur bat emateko.

— Zein da jendeari gehien gustatzen zaiona?

— Gabonetakoa. Jendea azarotik aurrera hasten da mugitzen eta, gainera, Gabonetakoa potolotxoagoa

kertzeko modua da »

denez... Edozelan ere, nik uste dut guztia gustatzen zaie-la. Gauza batzuek beste batzuek baino motibazio handiagoa ematen dute, baina gauzak eginez gero, nahikoa izaten da.

— **Horrelakoak egiteak lana ematen du. Merez du?**

— Bai, jendea gero gogoratu egiten da, eskertu egiten dizu eta egin dugunaz komentarioak egiten dizkigu.

— **Zelakoa da bezero ona?**

— Bezeroa egunez egun egiten da. Ezin dugu esan bezero bat ona denik gastu handia egiten duelako; esan bezala, egunez egun lantzen dira. Nik uste dut, gainera, gure alde daukagula hori. Izan ere, guk ematen dugun tratua oso pertsonala da; poliki-poliki bezeroa ezagutu egiten dugu, bere

gustuak... ez da merkataritza etxe handi batera joatea moduan, joan, erosi eta kito. Hemen, behintzat, tratua berezia ematen ahalegintzen gara, bezero bakoitza desberdina delako.

— **Arrasate moduko herrietan saldu egin beharra dago ala jendea berez joaten da dendetara?**

— Lehen esan dugun moduan, hemen asko pertsonalizatzen dugu tratua, eta jendea ohitu egiten da horretara; nire ustez, jendeak gustura erosten du Arrasaten. Agian landu egin behar da apurtxo bat jendea hemen gera dadin, eta horregatik saiatzeko gara gauza desberdinak egiten edo giroa sortzen.

— **Sumatu duzu aldaketarik ohituretan?**

— Ez, nik antzera samar

«Guk ematen dugun tratua oso pertsonala izaten da»

ikusten ditut, baina gerta daiteke denda motaren arabera aldatzea.


— **Zer deritzozu asteburuetan dendak zabaltzeari? (geroago eta gehiagok zabaltzen dute)**

— Norberak ikusi behar du lana noraino eramaten duen. Batzuek jende gehiago dute lanean eta guztien artean molda daitezke. Baina bakarrik jardunez gero, astelehenetik domeka gauera arte egin behar dugu lan edo, bestela, itxi egin behar... Norberak ikusi beharko luke

noraino den lana eta noraino bizimodua. Hainbat gauzen artean, nork bere bizitza izan beharko luke.

— **Oro har, mondragoe-tarrak zelakoak dira erosten?**


— Oso bezero onak, bai. Eta, gainera, beste herri batzuetatik ere etortzen dira erosketak egitera, eta horrek esan gura du zerbait berezia dagoela hemen, dendak daukela, baina kalitateko dendak. Ematen du jendea pozik etortzen dela Arrasatera erosketak egitera.



King's
Ile apaindegia

*Marixutan
izan zaitez
errege !!*

Zarugalde 23
ARRASATE
Tel.: 943 79 84 88



Berezitasunak
Kazualatxoak
Otarako hotz eta beroak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tel: 943 79 67 76

**HIES
BERRI**

Tel.: 943 79 26 99

Mondrak 1, Zestoak 2



Raulen mutilek bigarren zatian izan zituzten gol aukera garbienak.

Zapatuan, Arrasateko futbol taldeak denboraldiko lehen norgehiagoka jokatu zuen, eta ezin daiteke esan etxeko taldea ondo hasi denik. Partiduko lehenengo minutuetan, Zestoak bat eta hutsekoa egin zuen, eta Atxabalpen elkartutakoak aho zabalik geratu ziren. Hala ere, taldeak ez zuen behera egin, eta hamabosgarren minutuan, Muxik erdiraketa bat buruz errematatu eta Jon Muruak baloia sarera bidali zuen.

Ondorengo minutuetan, etxeko taldeak nagusitasuna erakutsi zuen, baina ez zuen gol aukera garbirik izan.

Lehen zatia amaitzeko hogeit hamar minutu falta zirenean, kanpotarrek Mondrako atzelarien huts bat aprobetxatu eta ordura arte bikain aritutako Ibaik penalti argia egin zuen. Zestoa taldeko Urdik ez zuen barkatu, eta bat eta bikoa egin zuen. Lehen zatia amaitu baino lehen, arrasatearrak berdinketa lortzen ahalegindu ziren, baina ez zituzten aukerak aprobetxatu. Azkeneko jokaldian, arrasatearrek falta jaurtiketa izan zuten alde, baina gaizki jokatu eta zestoarren kontraerasoarekin amaitu zen lehen zatia.

Bigarren zatian asko aldatu ziren gauzak, eta taldeak zeukan guztia erakutsi zuen. Zestoak aldeari eusteko lan egin zuen, eta Mondrak eraso baino ez zuen egin. Raulek, freskotasuna topatu nahian, Ibai eta Xabi kendu eta Edu eta Solupe atera zituen zelaira. Azkeneko minutuak Arrasateko taldearen onenak izan ziren. Hogeita hamargarren minutuan, Azpiazuk gol aukera garbia izan zuen, 44.ean, Keixik erdiraketa ona egin eta Ekainek zutoinera bidali zuen, eta hainbat eta hainbat alditan baloia atearren ondotik pasatu zen.

Egia da lehenengo partidua baino ez dela, taldeak zeukan guztia eman zuela, jokalariek inoiz ez zutela partidua galdutzat eman edo gol aukera garbiak izan zirela. Egia da, era berean, zortea ez zutela lagun izan, besteak beste, hiru alditan jo zuelako baloia zutoina. Hala ere, puntuak kanpotarrek eraman zituzten, eta hori da, azken batean, garrantzitsuena. Oraingo asteburuan, Mondrak Intxurreren kontra jokatuko du. Ea berdina ez den gertatzen

Siglo XXI nagusi

Kenci Arrasate taldeak denboraldiko lehen norgehiagokak jokatu zuen zapatuan Zorroztan, baina ezin izan zuen handik punturik ekarri. Iker Zubiriaren mutilek Siglo XXI taldea izan zuten aurrean, eta argi zegoen arerio gogorra izango zela. Denboraldi hasieran ohikoa ez bada ere, bi taldeek erritmo biziarekin jokatuz zuten, eta arrasatearren jokoa ona izan bazen ere, bilbotarrek kanpoko jaurtiketetan min handia egin zuten. Arrasatek bigarren laurdenean galdu zuen partidua, izan ere, bilbotarren defentsa gogorrak eta jaurtiketetan erakutsitako abileziak 25 puntuko alde eman zien. Hirugarren laurdenean, Kenci Arrasatek gogor egin zuen lan alde murrizteko, baina argi geratu zen denboraldi hasiera zela, eta alde 16 punturaino soilik murriztu ahal izan zuten. Azken emaitza Siglo XXI taldeak 110 Kenci Arrasatek 92. Oraingo zapatuan, arratsaldeko seietatik aurrera, partidu erakargarria izango da Iturripen, etxeko taldeak Campus Alavaren bisita izango du eta.

Zaldibarko txapelketa abian

Zaldibarko Txapelketako finala ekainean jokatu zuten eta, amaitu orduko, urteroko galderek hasi ziren: datorren urtean izango da Zaldibarko Txapelketarik? Erantzuna baiezkoa da. Aurten ere, Zaldibarko Txapelketa izango da. Izena emateko egunak urriaren 9a eta 10a izango dira, Monterron jaurregian, arratsaldeko zazprietatik zortzi eta erdiak arte. Txapel-

ketan parte hartzeko 28.000 pezeta ordaindu beharko dira. Zortzi mila pezetako fidantza izango da eta, era berean, aurreko urteko fidantzak bueltatuko dituzte. Txapelketa urriaren 20an hasiko da.

LOGOTIPO LEHIAKETA

Antolatzaileak inoiz baino ahalegin handiagoa egiten ari dira eta, besteak beste, Zaldibarko

Txapelketaren logotipoa egiteko lehiaketa antolatuko dute. Logotipoak Zaldibarrekin eta areto futbolarekin zerikusia izan beharko du, eta irabazleak 15.000 pezetako diru-saria jasoko du. Lana disketean edo papelean entrega daiteke, urriaren 15a arte. Aspaldian Zaldibar hutsik ikusi badugu ere, urriaren hogeitik aurrera, berriz ere urteroko bizitasuna izango du.



Eskubaloiko taldeak prest denboraldi berrirako



Arrasate Almen taldeak domeka eguerdian jokatuko du denboraldiko lehen partidua, Leizaran taldearen aurka.

Arrasateko eskubaloiko taldeek denboraldia hasiko dute oraingo asteburuan. Baina aurten berezitasun bat dago, izan ere, senior mailan talde bi arituko dira. Orain arte Arrasate Almen izan da Arrasateko talde nagusia, baina gazte mailan aritu direnek

beste talde bat eratzea erabaki dute, eskubaloian jokatzen jarraitu ahal izateko. Talde beteranoko entrenatzailea Bernardo Balerdi izango da, eta talde gaztea Jesus Mari Herrerok gidatuko du. Duda barik, Bernardo Balerdiren mutilei emaitza hobea

ak eskatuko dizkiete, aurtengoa maila horretan jokatzen duten hirugarren urtea izango da-eta. Hala ere, helburuez berba egitean, ahalik eta goren egotea da erantzuna. Bernardo Balerdik 18 jokalaria izango ditu denboraldiari aurre egiteko, eta

oraingo denboraldian, Eneko Arrieta eta Iker Murillo taldera bueltatu dira. Jesus Mari Herrerok 19 jokalaria izango ditu, eta lan zailagoa izango du, jokalaria oso gazteak dira-eta. Ikusi egin behar derbyetan nor nagusitzen den.

Arrasateko IV. Motokros Txapelketa Mojategin

Oraingo domekan, Arrasateko IV. Motokros Txapelketa jokatuko da Mojategiko zelaian. Txapelketa Arrasateko Motozale Elkarteak antolatuta du, eta

Euskadiko Txapelketarako baliagarria izango da. Domekan, senior, junior, kadete eta gazte mailakoak arituko dira, eta bi zilindrada izango dira:

alde batetik, 125 zentimetro kubikotakoa eta, bestetik, 250 zentimetro kubikotakoa. Entrenamenduak arratsaldeko hiruretan izango dira, eta ordu bat

geroago lasterketak hasiko dira. Nagusiek zazpiehun pezeta ordaindu beharko dute, eta hamabi urtetik beherakoek, berriz, bostehun.

Hastapen mailako sukaldaritza ikastaroa

• Zer da?

Sukaldean sartu eta galduta aurkitzen direnei zuzendutako ikastaroa da. Eguneroko ohiko jakiak prestatzeko jarraitu behar diren pausoak landuko dira.

• Noiz?

Urriaren 8tik abenduaren 10era bitartean, astelehenero. Ordutegia: 19:00-21:00.

Ekin

Emakumeak • AED

Interesatuak:

943 77 12 28

610 04 24 39

Pablo Uranga, 6

ARRASATE

Rock perkusio ikastaroa abian

Iñaki Bruña perkusio jotzaile eta irakasleak, beste hainbat musika aditurekin batera, hainbat ikastaro antolatu ditu, hemendik eta datorren urtera arte egiteko. Horietako batzuk egunotan jarriko ditu abian Bruñak; beste batzuk, ordea, datorren urtean hasiko dira. Oro har, musikaren hainbat aurpegi ezagutu eta landu ahal izango dira ikastaro horiei esker. Argibide gehiagorako edo izena emateko, deitu 943798025 telefonora.

ROCKZALE GUZTIENDAKO

Oraingoz, rock perkusio ikastaroan parte hartu ahal izango da; izan ere, urriaren 1ean hasiko da. Guztira, bost saio izango dira, eta Iñaki Bruñak berak emango ditu eskolak. Hamaika estilo ikasteko aukera eskainiko du: rock-and-rolla, funka, fusioa, rhythm&bluesa, rock gogorra eta dancea. "Musikari eta rock-



zale guztiendako gomendagarria iruditzen zait ikastaroa", dio Bruñak. "Ikasteko eta ondo pasatzeko aukera emango die". Gazteluondo aretoan izango dira eskolak, astelehenero, 18:00etatik 20:30era arte.

MUNDUKO DOINUAK

Hurrengo ikastaroa -ahotsarena, hain zuzen- ez da aza-

rora arte hasiko; Jesus Elizegi "Tuti"k emango du. Hortik aurrera, munduko leku askotako musika eta perkusio joerak eta estiloak ikasteko aukera emango digute hainbat irakaslek: besteak beste, afrikarra, latindarra, salsa, samba, flamenkoa eta arabiarra izango dira aukerak.

Irlandarren eta euskaldunon gaineko komedia



Askotan entzun izan dugu Irlanda eta Euskal Herria oso antzekoak direla. Han izan diren euskaldun askok hori esaten dute, baina zein da Euskal Herrian izan diren irlandarren iritzia? Gaur, egubakoitza, izango duzue hori

jakiteko aukera.

BAKARRIZKETA

Kontzezino kaleko Iamai kafetegian duzue hitzordua, gauerdian. Ordu horretan, Macrea Clarke aktore irlandarrak umorezko antzerki

saioa egingo du, Euskal Herriaren eta Irlandaren arteko parekotasunak ardatz hartuta. Umorez betetako bakarrizketa baten bidez, Clarkek bi herrietako jendea, bizimoduak, pentsaerak eta abar konparatuko ditu. Eguneroko bizitzatik ateratako istorioak modu barregarrian konstatzen ditu aktore irlandarrak; azkenean, bere buruaz barre egiten du eta gauza bera egitera gonbidatzen ditu ikusleak. Hortaz, zure buruaz barre egitera gertu ez bazauz, ez zaitez funtzio hori ikustera joan!

Antzerki tailerra

AED elkarteak antzerki tailerra antolatu du urriaren 20tik urtarrilaren 26ra bitartean. Hamabi jardunaldi izango dira. Izena emateko epea zabalik dago, urriaren 11ra arte.

ZAPATU GOIZETAN

Eskolak zapatuetan emango dira, 10:00etatik 14:00etara. Hamazazpi urtetik gorakondako dago zuzendua deialdia, eta, batez ere, helduen parte hartzea bultzatu gura du AEDk; izan ere, ekintza horietan gaztetxoek izaten dute parte hartzerik handiena, eta adin guztietako jendea elkartzea da AEDren helburua.

Matrikula 6.000 pezeta kostako da, 1.000 gutxiago langabe, ikasle eta AEDko bazkideendako.

Animatzen bazarete, AED elkartearen egoitzara joan edo 943771228 telefonora dei egin beharko duzue; gogora ezazue urriaren 11 izango duzuela azken eguna.

Begirale izateko aukera

Txatxilipurdi elkarteak, Aretxabaletako Loramendi, Eskoriatzako Axtroki eta Oñatikoa Laixan elkarteekin batera, aisialdiko begirale ikastaroa jarri du abian.

Parte hartzeko, baldintza gutxi batzuk eskatzen dituzte elkarte horiek: 18 urte beteta izatea eta urriaren 11 baino lehenago izena ematea.

Txatxilipurdik nabarmendu du ikastaro horren bidez begirale titulu ofiziala atera daitekeela, eta horrekin, Unibertsitatean aukera askeko kredituak baliozkotzeko aukera dagoela. Argibide gehiagorako edo izena emateko, Txatxilipurdira dei dezazue, 943795446 telefonora.

JOSE MANUEL JIMENEZ (ENERGIA BERRIZTAGARRIETAN ADITUA)

« Energia berriztagarriak nekazarien mesederako izan daitezke, haien ekoizle izan daitezkeelako »

Jose Manuel Jiménez nafarra iturgina da ogibidez, baina 80ko hamarkadan, energia nuklearraren aurkako mugimenduan parte hartzen hasi zen, eta benetako bokazioa aurkitu zuen: energia berriztagarriak bultzatzea, hain justu. Besteak beste, *Ingenios Solares* liburua argitaratu du, eta energia mota agortezinen gainean hitzaldiak egin eta eskolak ematen ditu. Irailaren 29tik aurrera, ikastaroa emango du Arrasaten.

–Zeini zuzendua dago energia berriztagarrien gaineko ikastaroa?


–Herritar guztiei. Ez da energia arloan diharduten profesionalendako, baizik eta energia mota horiekiko jakin-mina, interesa edo beharra duen edozeinendako. Ni neu koordinatzailea izango naiz, eta goi mailako adituek parte hartuko dute: Ekain Taldeko instalatzaile Fernando Bengoetxeak eta Iñaki Urkia arkitektoak, esaterako. Energia berriztagarrien mundua kaleko lagunari zabaldu gura diogu, oinarri teoriko eta, era berean, baita praktikoko batzuk eman ere.

–Zein praktika mota izango dira?

–Energia termodinamikoa ikustean, urarendako eguzki-berogailua egingo dugu; eguzki eta haize energiari dago-kionez, mota horretako aparailu bat zelakoa den ikusiko dugu; ur energiaren kaptuluan, turbina txiki bat egiteko asmoa dugu. Oro har, lagun bakar batek edo talde txiki batek egin ditzakeen gauzak dira. Horiei erakutsi gura diegu energia berriztagarriak zelan erabil ditzaketan.

–Zeintzuk dira erabilera horiek?

–Adibidez, eguzki energiaren funtzionatzen duen sukalde bat egin daiteke. Edo, guk egingo dugun moduan, mota horretako ur berogailu bat, baita telebista bat edo zazpi bat bonbilla hornitzeko adina-



« Unibertsoan dauden energia iturri guztiak aprobetxatu behar ditugu, eta bakoitza behar den moduan erabili »

ko eguzki energia bidezko zentral txiki bat ere. Ikastaroaren eragozpen handiena da aparailuak ez ditugula egingo erabili behar-kolirakeen lekuan; bestalde, guztia neurri txikian egingo dugu: adibidez, turbinatxoak 50 edo 60 litroekin funtzionatu ahal izango du, eta 400-500 watt eman.

–Hortaz, erabiltzaile txikiari dago-kionez, energia berriztagarriak ez dira hain ezagunak.

–Ez. Haize eta eguzki energia eragin handia izaten ari dira, baina industrian sumatzen da eragin hori; erabiltzailea, berriz, atzean geratzen ari da. Azkenean, kapital handiak zentralak egiten ditu eta energia saltzen digu, eta hori sekulako gasta da. Adibidez, herri txiki baten edo mendian bizi den batek nahikoa luke, bere behar-rak betetzeko, energia berriztagarriak bere kasa erabiltzea, etxetik gertu. Bestalde, nekazariei eta baserritarrei mesede handia egin diezaiekete energia berriztagarriak, eurak izan daitezkeelako kontsumitzaile eta ekoizle, eta energia hori beste saldu. Nire ustez, ezinbestekoa da energia sortzea kontsumitzen dugun lekutik hurbil. Kontrakoak ingurumenari kalte handia egiten dio, eta guretako ere gastu handiagoa dakar.

–Zergatik sortzen da diru galera hori?


–Alde batetik, kilometro askotik etxeraino ekartzerakoan, elektrairadarraren zati bat galdu egiten da. Bestalde, erabiltzen txarrak ere galera dakar. Elektrairadarrarengatik ordaintzen dugun prezioa balio duena baino handiagoa da.

–Zein neurriraino izan daitezke energia berriztagarriak besteen ordezkot?

–Energia iturriak dibertsifikatzearen aldekoa naiz ni. Kasu batzuetan, petrolio ezin da ordezkatu. Argindarrez dabil-tzan autoak onak dira, baina ezin dute abia-da handirik hartu, eta anbulantzien kasuan, adibidez, hori beharrezkoa da. Hortaz, nire ustez, unibertsoan dauden energia iturri guztiak aprobetxatu behar ditugu, eta iturri bakoitza ondo ezagutu eta behar den moduan erabili.

« Kontsumitzen den lekutik hurbil sortu behar da energia. Kontrakoak ingurumenari kalte handia egiten dio, eta guretako ere gastu handiagoa da »

TodoMuebleren ukitu magikoa:



ZERBITZUA
KALITATEA
HOBEA
PREZIOA

Kalitate ukitua baino askoz gehiago. Estilo ukitua baino askoz gehiago. **TODOMUEBLE KABI**Ako ukitu magikoarekin chunka bizi giro, imajina ditzakezun estilo guztiak, goi kalitatea bermatuta, eta finantzaketan **TODOMUEBLE KABI**AK eskaintzen dizun Formula Bikoitza:

- 6 hilabete deskontuarekin ordaintzeko, eskura ordaintzea balitz bezala. Edo
- 24 hilabete interes barik, eta gura baduzu seigarren hilabetetik aurrera has zaitezke ordaintzen.

Horrez gain, orain, **TODOMUEBLE KABI**AK %5eko deskontua eskaintzen dizu hainbat produktutan: gortinak, estoreak, veneziarrak, eguzki oihalak...

Etor zaitez Arrasateko **TODOMUEBLE KABI**Ara. Gustuko duzun giroan ibiliko zara.

Gipuzkoa Etorbidea, 28
Tel. 943 792 770 • ARRASATE

TODOMUEBLE
KABIA
DARIA OIA

Maritxu Kajoiaren miraria zuzenean Arrasate Irratian



Datorren egubakoitzean, Maritxu Kajoi eguna ospatuko da herrian, eta festa garrantzitsu horren jarraipena egingo du Arrasate Irratiak. Hori dela eta, urriaren 5ean, 19:30etik aurrera, Maritxu Kajoi jaia Arrasate Irratian jarraitu ahal izango duzue. Eta, horretarako, irratia lekuz aldatuko du. Tramankulu guztiak hartu eta Udaletxera joango gara, handik saioa egingo. Horrela, herriko plazako giroa etxe guz-

tietara iritsiko da herriko irratia bidez. 19:30ean hasi eta ordubetez izango gara jaia-ren hasiera jarraitzen. Era berean, hainbat elkarriketa egingo ditugu.

Baina egubakoitzean ez ezik, astean ere zabal egingo dugu berba Maritxu Kajoi jaiaz, aurten 25 urte beteko ditu-eta; dudu barik, data garrantzitsua, eta antolatzaileek izango dute zeresana.

Iñaki Perurenarekin Leitzara

Iñaki Perurena harri-jasotzailerak Leitzara zelako den kontatuko digu datorren eguaztenean, urriak 3, goizeko 11:30etik aurrera.

Leitzara herri txikia da, baina badago zeri ikusi. Iñaki Perurena leitzarra da eta hark kontatuko digu zer ikus dezakegun Leitzan, zein den hara joateko sasoirik onena eta non jan dezakegun.

Matxurak irratik barik utzi

Joan den martitzen goizean, lur azpiko kable bat hondatu eta, ondorioz, Arrasate Irratiaren emanaldia eten egin zen 10:30ak inguruan. Une hartan, mahai-ingurua ari ginen eskaintzen. EEBBei egindako erasoaren ondorioz sortu den gatazkaz ari ziren berbetan Aitor Antxia, Aitor Iturriaga, Amaia Arrizabalaga eta Galder Cristóbal. Eskerrak mahai-ingurua ordurako bukarera iristen ari zen!

Matxuraren ondorioz, ezin izan genuen eskaini Julen Arizolaleibari egindako elkarriketa, baina elkarriketa hori hurrengo egunean, eguaztenean, eman genuen. Barkatu eragozpenak, eta mila esker gonbidatu guztiei.

Peru ezagutzeko aukera bi arrasatearren eskutik

Udako oporraldia hilabete dela utzi genuen atzean, baina oraindik udako bizipenak gogoan ditugu. Hori dela eta, astelehenero, munduan zehar osteratxo egiten dugu. Astero bidaia bat izaten da ardatz Arrasate Irratian. Datorren astelehenean, 11:30etik aurrera, Perura joango gara Jon Aperribairen eta Manu Rodriguezen eskutik.

Bi arrasatearrak joan den abuztuan izan ziren Perun. Batez ere, mendia egitera joan ziren, baina Peruko bizimodua zelakoa den ere bizi zuten. Jon eta Manu izango ditugu, hortaz, astelehenean gidari.



UNZUETA

J A T E T X E A

- Eguneko menua
- Espezialitatea: Txuleta parrillan
- Karta

Zabola auzoa. ARAMAIO • Tel.: 945 44 50 95

PEUGEOT
Salmenta eta zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE



Gauko 21:00ak aldera ipini zuten On Jose Luis Iñarra parroko eta artzapezpikuaren hil kapera Udaleko areto nagusian, 1976ko urriaren 3ko domeka hartan. Eta, berehala, milaka eta milaka herritar azken agu-

rra ematera joan zitzaizkion, ume, gazte eta nagusi. Hantxe izan zen 14:00ak arte. Orduan, Arrasateko alkateak, Jose Antonio Altunak, On Jose Luisen omenez udalbatzarrak hartutako erabakiaren berri eman eta zinegotzien artean eraman zuten gorpua parrokiara. Hileta elizkizunak arratsaldean

izan ziren eta, ikusten duzuen moduan, herriko erretorea agurtzera joan ziren guztiak ez ziren elizan kabitu, ezta gutxiago ere. Hori dela eta, herriko plazan egitea erabaki zuten. Elizbarrutiko bi apezpikuek eta beste 80 abadek esan zuten meza, tartean, On Jose Maria Setien. Eta, Agur Jaunak kan-

tuarekin agurtu zuten aldare gainean meza ematen hil zen On Jose Luis Iñarra parrokoa.

Argazkia :

Laso.

Berriemalea:

El Correo Español, El Diario Vasco, Zeruko Argia, Erri-gintza aldizkaria,

**500.000 pezeta
gastatzeko gai zara?**

*Zatoz, erosi eta irabazi
itzazu 500.000 pezetak*

ibai-arte



ETXE MOBEL
MUEBLES ALTZARIAN

Araba Etorbidea 5 •
Tel. / Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE




RKUZ
ALTZARIAN

Araba etorbidea 20 •
Tel. / Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



RKUZ
ELEKTROGAILUAK

Asunción, 1 •
Tel. / Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

expert 



RKUZ
SUHARDE INTEGRALA

Mitarte 3 •
Tel. / Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

FAGOR 

50 urte baino gehiago gure bezeroen zerbitzura.

Eskerrik asko emandako konfiantzagatik

TDCi

Common Rail berria
130 CV



lider **naturala**

 **MUGARRI**



DEBA GARAICO
BANATZAILE OFIZIALA

Araba etorbidea, z/g • ARRASATE

Tel.: 943 79 07 44 / 943 79 07 54

www.mugarri.es / mugarri@mugarri.es